

# EUSKARAREN Berripapera

98. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko uztaila

## Euskaltzaindia Interneten

Web-orriak toponimia, nomenklator eta hizkuntz arauak biltzen ditu

**E**uskaltzaindiak azken urteotan egin duen lanaren erakusgarri da akademiak zabaldu berri duen web-orria. Kontsultatzeko moduan da [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net) helbidean.

Web-orriak hainbat atal biltzen ditu: Euskaltzaindiaren historia eta jarduerari buruzko informazioa, erabakitako hizkuntz arauak, *Hiztegi Batua* eta beste.

Erakundearen berri ematen den atalean, adibidez, Euskaltzaindiaren historia, xedeak, egoitzak eta organigrama ageri dira.

Erakundearen jarduerari buruzkoan, 2000. urterako iragarritako asmoak, atal ezberdinetan banaturik: hiztegi gintza, gramatika, onomastika eta dialektolo-



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

gia. Liburutegiari buruzko informazio zehatza ere bada-  
kar atal honek.

Produktu eta zerbitzuen atalean, lau zerbitzu eskaintzen dira: argitalpen-katalogoa, euskal deituren izendegia, hizkuntz arauak -*Hiztegi Batua* barne-, eta on-line argitalpenak. Oraingoz, *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas*. *Ohiko euskal mintzamoldearen antologia* ezarri da web-orrian.

Azken atalean, *Zer Berri* izenekoan, Akademiaren inguruko albisteak ageri dira, bai eta web-orriari berari dagozkionak ere.


Lau hizkuntzotan egin daitezke kontsultak: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez.

## Sareko Argia, berriturik

Euskarazko egunkari elektronikoa bihurtu da

**1**997an hasi zen informazioa Internet bidez eskaintzen *Argia* aldizkaria eta 1999ko ekainean aurkeztu zuen *Sareko Argia*, [www.argia.com](http://www.argia.com) helbidean. Orain, euskarazko egunkari elektronikoa bihurtu da, Kataluniako *Vilaweb*, Galiziako *Vieiros* eta Frantziako *Le Nouvel Observateur* bezala.

*Sareko Argia*-ren helburua da Interneten dabilzan euskaldunei euskarazko komunikazio-, informazio-, zerbitzu- eta aisia-tresna ona eskaintzea. Egunkari elektronikoa berria albiste laburrez osaturik izango da. Bertatik, Aurki, Kaixo, Euskonet eta Jalgi bilatzaileetan sartzeko modua izango da, eta Euskal Kulturaren Hari@ gunearen barruan bilaketak egin ahal izango dira.



**Euskararen Berripapera** zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

### Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1  
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 81 16  
e-posta: [I-Sosoaga@ej-gv.es](mailto:I-Sosoaga@ej-gv.es)

Euskaraz  Gaztelaniaz

Izen-deiturak: .....

.....

Helbidea: .....

.....

Herria: .....

Kodea: .....

Lurraldea: .....

Tel.: .....

e-posta: .....

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO


KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Hizkuntzaren eta Politikaren Sailburuordetza

4

Lege-gordailua: VI-572-1992  
ISSN: 1138-3038





# EUSKARAREN Berripapera

## sumarioa

1 • Donostiako  
Toponimia mintegia

2 • Pertsonaia:  
Andoni Urrestarazu,  
*Umandi*

• Laburrak:  
Euskadi Sariak  
*Hernaniko Kronika*

• Deialdia:  
Rikardo Arregi  
ikerketa-beka

3 • Egonaldiak familia  
euskaldunetan  
• Euskarazko hedabide-  
entzako diru laguntzak

4 • Euskaltzaindia  
Interneten  
*Sareko Argia*, berriturik

## Toponimiari buruzko mintegia egin da Donostian

Eusko Jaurlaritzak Toponimia-zerbitzua abiaraziko du  
aurten bertan normalizazioa helburu

Quebeceko Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak hizkuntza-gaietan lankidetzan jarduteko hitzarmena sinatu zuten Bilbon, 1999ko abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean.

1986tik hona, hizkuntza-gaiak aztertu eta garatzeko hainbat mintegi eta lankidetzak-ekimen egin dira Quebeceko eta Euskal Herriko adituen zein ikerlarien artean, ondorengo arlootan egin ere: toponimian, enpresetako lan-hizkuntzaren normalizazioan, hizkuntza-plangintzaren azterketan, terminologian, erabilera berezietarako hizkuntza-prestakuntza eta inmigranteen hizkuntza-prestakuntzan, frantsesaren eta euskararen erabilera informazioaren gizaratean...

### 2000. URTERAKO EKINTZAK

2000. urterako hiru puntuko ekintza-egitaraua zehaztu zuten hitzarmeneko bi alderdiek. Batetik, enpresetako hizkuntza-normalizazioari buruz maiatzean Quebecen egin zen mintegia. Bestetik, enpresetako lan-hizkuntza normalizatzeko bigarren mintegia, Euskal Herrian egingo dena datorren udazkenean. Azkenik, Quebeceko Toponimia-Batzordearekin elkarlanean, ekainean Donostian egin den toponimia-mintegia.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak urrats batzuk eginak ditu toponimia alorrean. Aipagarrienak, EAE osoko toponimiaren bilketa sistematikoa, batutako informazio horrekin datutegi bat sortzea (500 mila toponimo era hierarkizatu eta ekustrukturatuan ordenatuta), eta aipatu datutegi hori Interneten sartzeari nahi duen guztiak eskura izan dezan.



ZABALIK

Oraindik asko dago egiteko eta Toponimia Zerbitzua sortzea erabaki du Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Hona aurreikusitako diren lanak: falta den toponimia jasotzea; toponimoen datutegia gaurkotzea; toponimia dagokion kartografian txertatzea; toponimia arautzea, normalizatzea, ofizialtzea eta zabal-tzea; eta aholkularitza ematea eta kontsultei erantzutea.

Lan horien artean 2000 urterako lehenetsiko diren zereginetan dira, esaterako, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako datutegian dagoen Bizkaiko toponimiaren berrikuspena eta zuzenketa, eta Geografia-Toponimiaren hiztegi-txoa osatzea.

Ekainean Donostian egin den toponimia-mintegiak berebiziko garrantzia izan du, Euskal Herrian egindako mota honetako lehenengoa izan baita eta, beraz, lehen urrats bat toponimien normalizazio-bidean. Horregatik, mintegia-aren arrakasta ziurtatu nahian bertan izan ziren Henri Dorion eta Christian Bonelly, Quebeceko aditurik zailduenak.



EUSKARAREN

# Berripapera

98. zenb. • HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA • 2000ko uztaila

## laburrak

### EUSKADI SARIAK



Abian dira aurtengo Euskadi Literatura Sariak. Ohi denez, lau modalitetan banaturik emango dira aurtengo ere: euskarazko saria, gaztelaniazkoa, haur- eta gazte-literaturakoa eta itzulpengintzakoa. Aurtengo ez da Zabalpen Saririk emango, euskarazko liburuak kanpoan sustatzeko deialdi berezitua egingo du-eta Jaurlaritzak. Sariotik 9.600.000 pezeta banatuko dira.

### HERNANIKO KRONIKA

*Hernaniko Kronika* egunkaria kaleratzen hasi da herriko Dobera Euskara Elkarteak. Herriko albisteez osaturik dago eta euskaraz dator. Hernaniko berriak bildu eta herritarrei helaraztea da helburu, euskara biziberritzearekin batera. Komunikabide lokaletan lehen egunkaria da *Hernaniko Kronika*. Doan banatzen da.



## Deialdia

### RIKARDO ARREGI IKERKETA-BEKA

Rikardo Arregi Mintegia sortu zuten iaz Andoaingo Udalak eta Euskal Herriko Unibertsitateak. Orain, ikerketa-bekaren deialdia egin du Mintegiak lizentziatu berrientzat, euskal kazetaritzaren historia aztertzeko asmotan. Urte bateko iraupena izango du bekak eta 1.200.000 pezetako diru-saria.

## Pertsonaia

### Andoni Urrestarazu, *Umandi*

(1902-1993)

*Asmo-iztegia* kaleratu da



Andoni Urrestarazu, *Umandi*, Arabako Araian jaio zen 1902ko uztailaren 16an eta Gasteizen hil 1993ko azaroaren 21ean. Hamazazpi urte zituela ikasi zuen euskaraz. Gramatikaria izan zen eta berak ondu zuen gerra osteko lehen gramatika: *Gramática vasca*. Hainbat aldizkarietan egin zuen lan eta eleberririk ere idatzi zuen: *Gentza bearrean*, bakea gai harturik. Oraindik orain, berriz, biziak bukatzerik izan ez zuen lana argitaratu da: *Asmo-iztegia*. Hiztegi hau euskarazko hiztegiak orain arte bete gabe zuten hutsuneetako bat betetzera dator.

Lan hauxe da euskarazko hitzak esanahiaren arabera hurrenkeran jartzen dituen lehen hiztegia. Berez, Julio Casaresen *Diccionario ideológico* eta Pau Rouaix-en *Dictionnaire des idées sugerées par les mots* izenekoen parekoa da. *Umandi* zenaren familiak bultzatu du *Asmo-iztegia*, Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, eta UZEIk prestatu du.

Obrak 3.226 orrialde ditu eta bi liburukitan banaturik dago. Hiru zati ditu:

- Hiztegi ideologikoa. Hitzak familiak biltzen dira, esanahiaren arabera taldeka antolatuz (landareak, abereak...).
- Euskara-euskara hiztegia. Lehen atalean bildutako hitzen esanahia azaltzen da.
- Esaerak eta atsotitzak. Erabilera-adibideak ematen dira esaera eta atsotitzen bidez.

*Umandi* ez zuen lana burutzerik izan, lehenago hil baitzen. 82 urte zituela ekin zion hiztegi honi eta 385.000 fitxa baino gehiago osatu zituen, alfabetoaren arabera ordenaturik. Horietan hitzaren definizioa euskaraz, adiera desberdinak eta sinonimoak jaso zituen. Bestalde, *Asmo-iztegia*-ren diseinurako ezinbesteko izan diren 118 orrialde ere egin zituen, orrialde horietan hiztegiak gerora izango lukeen itxura erakutsi baitzuen.

1996an Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak izenpetu zuten lankidetzaz-hitzarmen bati esker lortu zen euskaltzale arabarraren lana biltzea, aztertzea eta euskarri informatikoa jartzea. UZEI arduratu zen horretaz, *Umandi*-ren irizpideak begirunerik handienaz jarraituz beti ere.

Dudarik gabe, lan erraldoi hau belaunaldi baten eta euskararen aldi baten erakusgarri da.



VITORIA - GASTEIZKO UDAL KAZETEA

